




BOOKTEGI

arrazoiak

SAIOA ALKAIZA GUALLAR



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

SAIOA ALKAIZA GUALLAR

Arrazoiak

BERRIATUA

BEÑAT

EZEZAGUN BATEK zakila jaten dizun momentua gauza asko izan daiteke, baina inoiz ez da une egokia beste ezertarako; ez deietarako, ez “labadorako arropa atera dut edo ez?” gogoetatzeko, ez oinetako azazkalak moztu ez dituzula barrundatzeko, ez *phoskitos* bat jango zenukeela pentsatzeko, ez zure lagunak bere buruaz beste egin duela jakiteko.

Sabaiko bonbillaren kulunkan arreta mantendu ezin nuenean, @DaniTsunami-k eztarri estua baina luzea zuela pentsatu nuenean, bere urrezko kirru distiratsuak ezker esku ahurrez oratzen nituenean, orduan, orduan desagokia izan zen inork deitzea. Kleenexak eskurago baintuen, kontzientzia baino!

Zeren eta astearte bat ez baita norbaitek bere buruaz beste egiteko egun bat. Astearte buruzuri bat. Errutinatua, abuztutua, absurdoa.

Egoismo ariketa bat iruditzen zitzaidan telefonoak jotzeak, noiz eta arratsaldeko 15:37an, abuztuak 22 egun lapurtuak zizkionean 2023ari.

James Blakek *Pick Me Up* kantatzen zuen, *Euphoria* seriearen soinu bandan, nire smartphonetik, eta gaixo ikus nitzakeen gaitzak jotako pinu ilarak, logelako leihoez bestalde, halako eszena marika baterako bukolikoegia zatekeen eszenan, bukolikoegia, baldin eta bizi erreala ez balitz. Horregatik, nahasten zitzaizkidan behi zaharren marru entzun berriak eta neronenak, logela berean, nire izatearen esentzia sustraitu eta antigoalekoari ihes egiterik ez banu bezala.

Lurra eskuin orpoz kolpatzen nuen, erritmikoki, perkusio autosortuak neure burua distraitu zezan, zakil irenste horretan zentratzeko, eta burua estutzen nion, hari, neuretik atera nahiko banu bezala. Mamada bat, mamuek alde egin zezaten; mamada bat, beste norbaitez mamutzeko. Poesia gehiegi, mamada baterako. Eta summunean ez, baizik eta, behintzat eroso nengoenean, utzi nionean pentsatzeari lanean, miazkatutako beste azken gorputzean, herenegun jandako ahuntz gaztadun pizzaren gehiegikerian eta, utzi nionean, derrepentean, ni izateari... L.ren aitaren bikotekidea deika ari zen, ez behin, baizik eta bitan, baizik eta hirutan, baizik eta bost aldiz, alegia, hartu nion arte.

Orkatilaraino gehiegi igo nituen galtzerdi zurietan iltzatu nituen begi biak, kentzeaz ahaztu nintzela ohartuta, pareko ezezagunak zerbait gertatzen ote zen begiradaz galdetzen zidan bitartean.

“L. hil da, bere buruaz beste egin du”, esan zuen Doloresek, eta, gero, mutu gelditu nintzen, “Zergatik deitu dit berak? —pentsatu nuen—. Zergatik ez L.ren aitak? Joder, hetero hauek, ze ardura gutxi... Joder, joder, joder, L. zer egin duzu? Joder, joder, joder...”, eta, gero, “L., ostia, beti gaizki, beti arreta eske”, esan nuen, eta gero, “Zer?”, ez dakit zer pasa zen, eta, “Zer?”, eta ez nintzen erantzuna ulertzeko oso gai, eta gero, gaizki sentitu nintzen pentsatutakoa pentsatzeagatik, eta, gero, denbora mortu bat, gorputz ihartu bi, isiltasun ozena. L. hil da.

“Banoa? Edo geldituko naiz?”, galdetu zidan nicknamez baino ezagutzen ez nuen mutiko argalegi horrek, ez nuen oroitzen hor segitzen zuekin ere, eta “Segi, segi, ondo nago”, erantzun nion, atearen danbatekoa entzun aurretik.

L.rekin azkeneko aldiz ohe honetan bertan egon nintzen, koltxa zatar honen gainean eserita biak, berak begirada galduz galdetu zidan ea zein ote zen bere animalia, “ez dakit”, eta “esan bat”, eta “ez dakit”. “Agian, lehoia?”, bota nuen, zerbait esatearren. Mistikoegi zegoen eta nik ezin nuen jasan. Eta haren eskuen hoztasunari begiratu nion, ia sentitzeraino. Hain izan daiteke sarkorra besteen pena.

Bat-batean, miseria adina metro karratu sartu zen gelan, atearen danbatekoak nire onera bueltatzen lagundu ninduenean, eta fikzioan estereotipatutako gay baten kopia nintzela iruditu zitzaidan, zer eta larrua jotzen, lagun onena hil zitzaidanean. Basurdeen pare isurtzetik gertu, bizi hari bat tenkatu eta hausten ari zenean. Nazka eman zidan irakurtzen ez egoteak, jaten, leihotik begira, amari deika, Netflixeko zakarren bat kontsumitzen, dutxan, plazan, kafea hartzen; nazka eman zidan zerbait duinagoan harrapatu ez izanak. Nazka, oraindik hankartea puztuta eta zainak gorri izateak, noiz eta gorpua bero zegoenean... “nire lagun onena...”; baina pentsatu nuen, L.ri grazia egingo ziokeela jakiteak nola enteratu nintzen; L.k ahoa zabaldu, eta irri-karkaila sarkor hori egingo zukeela, barrez leher zatekeela ia malkoak irteteraino, besarkatuko nindukeela, “buaaaaa, follatzen harrapatu zaitut? Eske onena zara, tiooo”, esanda.

Irribarre erdi bat atera zitzaidan, nire autoeszena erridikuluarengatik eta, horrekin bat, malko gazi zaporea, ahoan, bi ezpainen parentesian, esan behar nuenak, edo esan nezakeenak, garrantzirik ez balu bezala. L. hil zen.

2024ko abuztuaren hondar egunak

10:30AK DIRA, goizeroko agurrak metatzen dira antsiolitiko gehiegi kontsumitu dituzten aurpegi-
begi-zuloetan. Hau da euskal prentsaren Olimpoa, eurotan kobratu ezin, eta egotan kobratzea.
Zentimetro bateko sakonera omen, kazetariaren jakintzak, eta hemen nago, beste inora
eramango ez nauen lizentziaturarekin, 20 urtetan, amesten, eta 32tan gorrotatzen dudan
bulegoan. Ananadun alkandora gehiegi, gauza onerako.

Ni ere horrelaxe noa: alkandora, baina beltza, urrezko septuma, tatuatzaileak puntillismoz
egindako suge txiki bat besoan, bakeroak, beltzak horiek ere, eta *vans*-ak. *Dark Side*-ko besteen
bertsioa naiz. Igual-iguala izan eta ezberdindu nahian.

“Kafe bat?”, esan du ahotsen batek, eta 50 xentimoko hauts sintetikodun edari beroaren bueltan
batu gara, nor izan nahi eta inor ez garen guztiok. Kazetariak. Kanpoan, ateriegi dago, ganorazko
tristura honentzat.

—Monografikoak banatu ditugu: suizidioaren ingurukoa tokatzen da. Gazteria, migrazio
prozesuak, egoera sozioekonomikoa, generoa...? Aukeratu azpigai bat, oraindik banatzeke daude

—begietara begiratu dit bere buruari “erredaktoreburu” deitu arren, guk baino 100 euro gehiago
kobratzen duenak. Zerbait dauka hortzoietan; ez diot esan.

—Bai —boliaren botoia sakatzen tematu naiz, psikopata bat bere krimenak gordetzen nola. *Tik,*
tik, tik, tik, tik, tik, tik, tik, tik. Ez dakit gandua ote den antiojoetan dudana edo tentsio jaitsiera
bat.

Tik, tik, tik, tik, tik, tik, tik, tik!

—Zer? Bai, zein? Zein azpigai egin nahi duzu?

—E? berdin dit, berdin dit —eskela bat trabatu zait eztarrian, ahanztura bat.

Mac-ek pizterakoan egiten duten soinu atsegin hori entzun dut, bakoitza bere lekura bueltatzerakoan, mentadun ambientadorearen aroma duen gela luze laukizuzenegian. Ene, apatia kolektibo hau.

—Gazteen gaia nik hartu dut —altuegi hitz egiten du beti nire ondokoak bere mahaitik, eta buruko soilak isla arraroak egiten dizkio argipean. Fluoreszente hauek ez diote inori mesederik egiten; igogailu erraldoi batean gaudela ematen du—. Egoera sozioekonomikoarena libre dago —gaineratu du.

—*Bai, bale, ados* —Tik, tik, tik, tik, tik, tik, tik, tik.

Astean hiru alditan egiten dut Berriatua-Bilbo bidia, eta, bestela, etxetik aritzen naiz. Gustatzen zait hona etortzea, atsekabe hau sartzeko kapsula egokia da-eta autoa: negar egin, oihu, musika entzun, abestu edo immolatu. Habia gurgildun bat. Bulegora iritsi, baina, eta basapiztia intelektual hauek denek inguratzen naute, alproja soilak izateko egolatregiak, argiegiak, herri xehe izateko.

Nik robot baten determinazioz egiten dut lan. Bizitzak aurrez aurre jarritako “Cookieak onartzen dituzu?” galderari, “Bai, ados nago” eman izan banio bezala, xedapenak irakurri eta ulertu gabe. Horregatik ez da nabaritzen barne-pitzaketa neurtu batean nagoela, L. hil zenetik. Urteurrena izango da segidan. Urtebete. Eta ni hemen.

Qwerty teklatua nire hatzen luzapena denean, seguru nago erabat arrakalatuta nagoela, eta seguru, aldi berean, erabateko apurketarik ezaz. Ez naiz malkoz lehertuko den pertsona klase horietakoa, ez naiz antsietate krisien klubekoa, ez naiz eszenetakoa, eta, agian, hori lehertzea bezain txarra da, xehatu ezean, nostalgia eta pena honen piezak zeintzuk diren ere ezin dudalako ikusi.

Barnekoa txartua eta kanpotik itxura ona duen ozpin zaporeko esnearen antza hartzen diot nire buruari. “Erreportaje bat da, ez da hainbesterako”, hausnartu dut, pantailan utzi dut begirada, eta mahai zuriaren gainean dudan aitaren baratzeko sagar berde-marroixkari egin diot hozka, ia bihotzeraino.

Mikatzegi dago.

Googlek dio “pobrezia egoeran daudenak” suizidatzen direla gehien. “Pobrezia egoeran”, diote, pornografikoegia baitzaie “pobre” idaztea. Googlek dio: ez dagoela profilik eta zaila dela jakiten

seinaleak zeintzuk diren eta zer egin eta arreta zenbakiak eta desordenatutako informazio pila bat eta eta eta eta. L.k barre egingo zukeen, idazten ari naizen panfletoa irakurtzerik balu; barre, ironiaz eta zinismoaz eta “periolisto” deituko nindukeen, eta lehen paragrafoa baino ez zukeen irakurriko. Idatzi dudan bakarra.

Lau egun joan dira. Bihar da entrega eguna: elkarriketatu ditut suizidioaren kontrako elkarteko bi, lekukotza bat jaso dut, baita etxegabetzeen kontrako taldearen analisia ere. Ia bukatuta daukat.

Bazkalorduan, gainontzekoek eguneko egunkarietako azalak iruzkintzen dituzten bitartean, denen otorduen gantz kopuru urria kalkulatu dut mentalki: arroza eta barazkiak, entsalada intxaurrekin, seitana tipula potxatua eta kuskusa... Hiru aldiz parte hartu dut elkarriketan, hiru “bai” neurtu.

Ondoren, L.ren aitaren bikoteari, Doloresi, mezu bat bidali diot kafe orduan. “Zmz dena? Mx”. Gertatutakoa gertatu izan ez balitz, sekula ez niokeen idatziko.

Hiletan, musu eman zidanean, hotzikara bat sentitu nuen, pena eman baitzidan euskal azal lastu horrek, eta L.k, gurasoak bereizi zitzaizkionean, “zorra” deitu izan zuen aldiekin oroitu nintzen. “Ondo, zu? Eskerrikaskogaldetzeagatik” erantzun dit, 60 urtetik gorakoen abilitade teknologiko generazionalaz. Ostean, Grindr-eko biri pare bat “fotopolla” bidali dizkiet, gogogabe, galeriatik zuzenean, baina tentsioa mantendu behar, eta, leihotik begira, enaren hegaldi geometrikoan galdu zait denbora.

—Oso ondo dago, baina aldatu argazki nagusia, ez du titularrarekin bat egiten, eta ahaztu zaizu idaztea bigarren irudiaren argazki-oina —ahoskatzeko presa balu bezala hitz egiten du erredaktoreburuak; nabaritzen zaio, aitzitik, pozik dagoela, hortz itsusi horiek uzten ditu bistan, eta pozik dago—. Infografia ia eginda dago, diseinatzaileek esan dute arratsalderako, bertan duzula. Oso ondo —eta joan egin da.

—*Eskerrik asko* —Tik, tik, tik, tik, tik, tik, tik, tik, tik.

L. hemen balego, barre egingo lidake, hemen nagoelako, antsietate krisirik gabe, berunezko atsekaberik gabe, min neurritsu eta ohiko batekin, gizartearentzat onargarria den abanikoan, produktiboki triste.

20 xentimoko bi txanpon eta 10eko beste bat bota ditut kafe makinan, eta hegazkin bat ikusi dut zeruratzen. Sinbolismorik batere gabe, sinpleki, errutinatutako egunen joan-etorrian.

Sagar bat ahoratu dut, kosk egin, eta argizaririk gabeko berdetasun organiko honen itsutasuna irentsi dut. Hau, bai, sagar hau, bai, ederra dago, ez mikatz, ez gozo.

Beste asteazken buruzuri bat da hau. Bihar, osteguna.

DOLORES

KANBIOAK ESKURA eman zizkidan, begietara begiratu gabe, keinua propio mekanikotasunez etxean entsaiatua balu bezala, gure begiek elkarri traba egin ez ziezaioten. Saihestu egiten zuen nire begirada, banekien. Ez zen bakarra. Irri erdi bat egin nion nik, aldiz, okinari, edukazioz-edo.

Hartzerako, bero zegoen ogia oraindik, *campesina* irindu bat, zabala eta karraskaria; beso azpian jarri nuen, ordaindu eta buelta ematerakoan, sumatu nezakeen: tabu bat neraman bizkarrean josia. Denen begiak zeuden nire garondoan.

Goizetan, okindegiko atea zabaltzen nuenean, kordialitate antzeztu hori irudikatzen zuten guztiek, eta *El Show de Trumanen* nengoela imajinatzen nuen batzuetan: ni nintzen Truman eta, gainontzekoak, aktore txarrak. Non ote ziren kamerak? Kafe usaina egoten zen, ordea, airean, eta, kanpotik, atsegina zirudien giroak.

Denek zekiten duela urtebete gertatutakoa. Alegia, etxean bi ginela. Senarra eta ni. Honezkero, bi. Jada, bi, Orain, bi. Paranoia paseatzen nuen goizero; bakardade hau eta paranoia. Zer gehiago ote zekiten? Eta zer pentsatzen zuten guri buruz?

Urtebete aski da asko izateko, gehiegi.

Orrazkera perfektuak zeramatzen denek Herrian, okindegian ikus nezakeen edo kafetegian — ile hanpatuak, lakatuak, motzak baino eleganteak—; eta hitz egiten zuten eguraldiari buruz; bataren eta bestearen eta, batez ere, ez zegoenaren gauzez; eta haien seme-alabez, eta nik... Nik ez nekien zer esan. Besteak behatuta ere, ez zitzaidan egote natural hori natural irteten. Hala ere, egunero kafetxo bat, saiakera formakoa.

Baina... baina... “epela” eskatzen nuen kafetegian, eta inoiz ez zidaten kafe epelik jartzen. “Edalontzian”, esango banu ere, katiluan emango lidakete eta “ebakia” nahiko banu, baietz azaldu hutsa, barran.

Dendetako atea gurutzatzen nituenean, zurrumurru bat esnatzen nuen, liztor soinu gizatiartu bat, “rrrrrrrr”. Ahotsak entzun bainitzakeen nire izena esaten, nirea, senarrarena eta, gehienbat, berea. Urtebete.

Kafe hondarrak basoan, inorekin hitz egin gabeko tarte hura eta betiko ziztada hori soinean, aulkitik altxatu eta okindegi-kafetegitik atera egin nintzen, pisu berdinez eta txalet antzekoz

osaturiko kaleetatik 3.600 pauso egin nituen etxerantz, hori zioen erloju adimentsuak; oraindik ere, bero zegoen ogia, sukaldeko mahaian uzterakoan.

Jardinerantz ematen zuen ataka zabaldu, eta garesti erositako kartzela batean nengoen; salarantz iritsi nintzen automata bat nola, eta denbora joan zitzaidan, astiro, modaz pasatako goteleari begira. Altuegiak ziren sabaia, zabalegiak pasabideak, oihartzundunegiak gelak. Zer den bizitza: etxe handi bat nahi, eta lortzerako, handiegi.

Ondarroan biziko nintekeen ni, zentroan, Musika plazan edo Iparragirre kalean edo Artabiden edo edozein leku zaratatsutan, eta jendea ikusi, Zugaztian, paseatzen, “Egun on!”, eta, “Egun on deizula, bai!”, erantzun bueltan, itsasoa zein harro dagoen aipatu, eta pisuak zein garesti, hitz-aspertuan, dibertitzeko; senarrak, ordea, etxe-etxe bat nahi zuen: jardina, pare bat solairu, garajea, tailertxoa. Espazioa. Orduan, barnealdera jo genuen.

Berak hala nahi baitzuen: txalet bat, Herrian. Bakardadearentzako bizitegi izan daiteke espazioa. Norbait ikustearren, luze ibiltzen nintzen hara bizitzera joan ginenean, ez baita erraza jendea maite izan eta mendiek baino ez inguratzea.

Denborarekin, 40 metro karratutako loft horietako bat izatea bilakatu zitzaidan amets, beste nonbait, zerbait txikia, arnasa faltan nuela sentitu, eta neure burua kalera joatera derrigortzeko. Batez ere, azken urtebetean.

3.600 pauso egiten nituen egunero ogia erosi eta buelta eginda, eta gero etxean, milaka eta milaka eta milaka...

Nahiz eta, azken urtean, Herriko plazatik pasa eta esamesak zabaltzen zirenean, frontoi bueltan harriak ere murmurika entzun nitzakeenean, osasun-etxe parean marmarra nigan edo kanpoan ote zegoen ez nekienean... handinahikeriaz erositako txaleta bunkertzat hartua nuen. Etxean joaten zitzaidan eguna. Inoiz baino gehiago, azken urtebetean.

Batzuetan hori baino ez nuen pentsatzen, ez besterik, hori: “Urtebete pasa da, soilik urtebete, ja urtebete”.

Amen-omenka zebilen mundua, eta gu ginen Herriko protagonistak: istorioetako epizentroa, desastrearen familia. “Gizarajoak”, entzuten nuen askotan, pasa eta pare bat metrora. “Urtebete pasa da, soilik urtebete, ja urtebete”.

Kale kantoietan bideokamera gordeak jarri zituztela irudikatzen nuen batzuetan, elkarriketen urakanaren-begia gu ginela, zurrunbilo etengabea geundela, jendea begira zegokeela, murruek kanpotik barrurako behatxuloak izanez gero.

Dolores izena jaso nuen ordainetan, 7 ordu iraun zuen erditze baten truke, *Zigor* deitzen diren horien zorte txar berberarekin, inork gerora inoiz gaitzondorik sentitu gabe.

Eta orain, orain, une zehatz honetan bertan, sukaldean nago, “Urtebete pasa da —esaten edo pentsatzen, ez dakit—, soilik urtebete, ja urtebete”, zutik, olla-expresarekiko intsumiso, su-txikian garbantzuak egiten. Bitartean, sakelakoaren pantailan, telebistaren programazioa begiratu dut. Hori baitut zaletasun nagusi: telenobela turkiarren bat eta *Candy Crusha*.

Burua altxatu dut, hutsik dagoen hozkailu gris distiratsuaren gainazalari beha, pisutsuak zaizkidan begi hauekin, eta gailu garestia dela ohartu naiz, etxean dena bezala, senarraren erakusnahiaren ispilu.

Noizbait, hozkailuan, plastidekorrez egindako esku ahurren marrazki bat egon zatekeela egin nuen amets. Haur txiki batzuk eta senarra eta biok azal gintezkeela, “aita” eta “ama” hitzen azpian. Behinola, amaren egunean, inork zoriondu ahalko ninduela egin nuen amets; 7 urte eta gero etsi nuen arte. 7 urte: mende bat, ezinaren egutegian. Eta, hala ere, urtero, normak, eskolako atariak, iragarki ponpoxoek, serieek, kontsumismoak, okindegiko solasaldiek eta kuadrillako MirenMonikaMaite guztiek oroitarazten didate nire emakumetasun arrakastagabea. Ez dut makarroiz egindako lepokorik. Ez buztin itsusiz zintzelatutako sasi-eskulturarik, eta ez dut izango. Okerrena da, banitu ere ez dakidala hobeto ote nengokeen, baina hobe hori pentsatzea.

Emakumea naiz, eta ez naiz ama, eta iruditzen zait beso bat faltako balitzait bezala begiratzen nauela Herriak; ogia okerreko aldera eman, eta besorik ez dudala ikusita “ai, barkatu” esaten duela okinak. Ez dakit haurrik hartzen. Ez dut fardelik aldatu. Ez dakit zer egin niniak mainak egiten hasita. Eta orain, behintzat ama antzeko zerbait nintzela, ama gaizto bat, amaordea, “hautsi nuen” senarraren lehengo matrimonioko alaba horren ama postizoa, sorginen ileak eta kaliza erraldoiak dituzten horietakoak, senarra lapurtu ziona ondokoari; orain, behintzat hori banuela, hori ere ez naiz. Saiatu nintzenarekin. Eta taladro hori buruan: “Urtebete pasa da, soilik urtebete, ja urtebete”.

Negar egin diot sekula aintzat hartu ez ninduen senarraren ondorengotza genetiko horri, L.ri. Zehatzago esanda, bi hutsuneri egiten diet negar: ama izatearekiko ezintasun honi eta sasi-ama izatearen fantasia horren bukaerari.

Orain, baina, garbantzuk eltzean ikus ditzaket, sukaldea eta sala gunee berean batzen dituen gela definigaitzetik, sofatik bistaratzen baita sukalde amerikar klasikoa, fogoidun horietakoa, yankien *reality*etakoen antzeko bat.

Erretzen hasi dira. Edo diraute. Edo ez dakit. Sua. Garbantzuk eta sua.

Erre usaina aditzen dut, aspaldi, bai salan, bai pasabidean, bai beheko komunean, baita garajearen ere, eta ganbararaino iritsi ote den dudatan naiz; mendeku txiki bat da, giro ketu itogarri hau. Segurtasun sistema kontratatzerakoan, suteen kontrakoa ere erosi ote genuen egin dut zalantza, baiezkoan nengoen, baina ez dirudi, jotzen hasiko zatekeen eta, bestela.

Arnasa mantsotzen ari zaidalakoan nago, biriakak pronto daude-eta esfortzu handiagoa egiteko. Zer alde dago, funtsean, itolarritik arnasestura? Psikosomatizaziotik gutxi du egoerak. Sofa gris sintetikoaren gainetik mantso-mantso pasa dut eskua, orografia horretan hatzekin zerbait irakurri ahalko banu gisan. “Zergatik hil zen L.? Zergatik egin zuen bere buruaz beste?”.

Fisika karrera bat, irakasle izateko masterra, auto istripu batetik kalterik gabe aterata izana, lehengo bikotea honengatik uztea, gurasoen zaintzaile izatea, dibertigarria, beste probintzia batean bizi den kuadrilla zalea eta hori dena naiz, baina orain, eta Herria deritzoten toki honetan... Etxekoandre paralizatu bat naiz, suari begira, eta zaila da esatea nahimenez edo halabeharrez.

Belztu dira su handiaren atzeko Portugaleko azuleju urdin-zurixkak, marrazki moderno bezain errustikoak ia ezabatzeraino. Lanbroa sartu da etxera. Behe-laino itsaskorra. Grisa da ambientea, eta ez da alarmaren txisturik aditzen. Hala beharko luke, honezkero. Beste Herrian banengo, nire Herri-Herrian, ostegunetan afariak neuzkakeela otu zait, eta bermuta, larunbat goizetan, eta barre egingo zuketen gainontzekoek nire anekdotekin, orain sortzen ez zaizkidan anekdotekin.

Goragalea sortu dit garbantzuk erre usainak, eztul egin dut, behin baino gehiagotan, sofatik mugitu gabe. Leun-leuna da oihal klase hau. Bestela ere, paretak aspaldi pintatu gabe geneuzkan, eta “Beno, total”, agertu zait pentsamenduan, ez besterik. Agian L.k ere halako zerbait pentsatuko zuen: “Beno, total...”.

Argiztatu da mobilaren pantaila, halakoren batean: “Zmz dena? Mx”, Beñaten mezua da. Mutiko ona da, inoiz ia traturik izan ez badugu ere, gertatu zena gertatu zenez geroztik, horrelako detailtxoak izaten ditu lantzean-lantzean, whatsapp mezuren bat, seinaleren bat. “Ondo, zu? Eskerrikaskogaldetzeagatik”, erantzun diot.

140 metro karratu ditu etxeak, “120 erabilgarri” irakurri genuen senarrak eta biok webgune horixkan, etxe bila ari ginenean, eta ikusi genuen lorategi zaindu hura: geranioak balkoietan, gorri biziz; hortentsiak sarreraren alde bietan, tonu urdinkaretan, morerantz jotzen; eta, atzeko partean, izena nola ote zuen ez genekien zuhaitz erraldoi hori. Barrualdean, bi solairu eder, handi, hiru logela, bi komun... Hipoteka sinatzerakoan, familia bat imajinatu genuen bertan, izango genituzkeen haur hipotetiko guztiak, June eta Ane eta bestela Jon eta Urki, bizpahiru ume inbentatu. Eszedentzia hartuko nukeen lanean, haurren zaintzarako, eta zoriontsu izango nintzatekeen.

Joan diren zortzi urteotan, bitan pintatu genuen logela bera, urdinez behin, arrosaz bestean. Abortuak etorriko ziren gero. Zuri utzi genituen gela guztiak, azkenean.

Beti pentsatu dut senarrak L. zuela, eta, hori dela eta ez zitzaiola niri bezain mingarria hori dena, ezintasun hura.

“Metroetako zenbat bete ote dira kez?”, eta suari begiratu diot, ez baita soilik kedar izugarri handia dagoenik.... bi metroko garrak azaltzen hasi dira su amerikarraren metal artean; munstro basa da sua, formagabea, gorri ederra, erakargarria. Ikusteak lasaitasun kezkagarria sentiarazi dit. “L.k hau sentitu ote zuen?”.

Eta hemen nago, sofan, batez ere hemen ez egoteko arrazoirik aurkitzen ez dudako; zorabio sentsazioan kulunkatu dut neure burua, sudurretik eta ahotik ahalegindu naiz oxigenoa gorputzerantz sartzen, biziraupen inertziaz, tokitik mugitu gabe.

Bero zegoen ogia, orain, kiskalita dago, etxeko sukaldean.

Begi biak bildu ditut, nire baitara noa, nirvana baterantz gerturatzen.

Aspaldiko partez, bakean nago, ez dut gehiagorik eskatzen, zoriontasun bilaketa etengabekoari men egin ez, eta bakean egotearekin konformatzen naiz. Izan ere, hori da denaren gakoa, konformatzen ikastea. Horra, bizitzaren sekretua. *El Show de Truman* honetarako bukaera bikaina, ikusgarria, izugarria, handikia.

Gorri biziz argiztaturik dago sukaldea, ederra da espektakulua. Performance modernista, betiko Herri aspergarriarentzat. Herensuge bat. “Halako bukaera bat merezi dut, joder, noski baietz!”.

Eta inork espero ez duenean, alarma jotzen hasi da. Joko ez zuela ia argi ikusten nuenean. Etsia nengoenean; etsia eta lasai. Burrunba betean hasi da, piiiiiiiiiii etengabea, bere burua nabarmendu nahi duenaren egoaz, auzo guztia gortzeraino, eta ni lokartzen hasia nintzen, eroso. Laster etorriko dira suhiltzaileak, beraz. Polizia. Sirenak. Dena. Herrikoek deitu egingo zuten bestela ere, seguru.

Badakit bihar, okindegian, are arraroago begiratuko nautela, eta, hala ere, une hori non ia- ia, sentrazio hori, instant bat, segundo hori... hala ere, “Hori da —gogoetatu dut—. Hori da sentitzen dena”. Eta lasai sentitu naiz, oso-oso aspaldiko partez.

EIDER

EZ DAKIT ZERGATIK ez ninduen agurtu. *Utzi* genuenez geroztik, ikusten nuen lehen aldia zen, *utzi-edo*, zeren *egon* ere ez ginen egon-egon; ligeak izan ginen edo halako zerbait. Berak utzi ninduen, edo, agian nik; ez ginen oso ondo ulertu. Zeren eta, nik banuen beste “bikotebatedo”, zerbait, eta bera ez zen sartzen askatasun saileko gure akordioan, eta, azken finean, berak erabaki zuen guk kontakturik ez genezan izan, zeren eta, nik segituko nukeen mataza hori nahasten. Mezuak desorduetan, hitzorduren bat desgaraian, luzeegiak ziren telefono deiak. Jarraituko nukeen eta, gerora, damutu. Geroratuko nukeen erabakia, baldin erabakirik hartzeko gai izan banintz, infinituraino. Ez nuen bereziki ezer egin, mareatu, kito, hori badakit, eta hala ere, ez nau agurtu. Pentsamendu nahasien haragi masa izan naiz beti.

Pare-parean tokatu ginen, ez bere, ez nire, ez den eskualde horretako txosnetan. “Zergatik dago hemen? Zergatik nago ni hemen? Joder, ez dakit ikusi nauen”. Bat-batean kezkatu ninduen nola nengoen: “Bera baino guapago edo ez? Zergatik ekarri dut ajatutako kamiseta berde-ilunxka itsusi hau? Ez zait ondo gelditzen. Zer pentsatuko ote du nitaz? Ilea moztu nuen azkenekotik, ez zait asko gustatzen nola nagoen...”. Begirada bilatu nion, baina nitaz paso egiten zuen. “Ez dut kontakturik nahi” hura fase bat zela uste nuen; jende jatorra gara, zergatik moldatu gaizki?

Ni baino denago imajinatu nuen: ni baino zoriontsuago, ni baino lagun gehiagodunago, ni baino arrakastatsuago bizitzan; ni baino denago.

—Botea jarriko dugu? Bai, ezta? 20 *pavo*? Ei, E., botea! —ia garrasi egin zidan kuadrillako batek, arreta guztiz galdua nuela ohartu nintzen arte, billete bat luzatu nion, eta kito, bakean utzi ninduten.

—Goazen goiko plazara? —esan nien nik—. Hemengo musika ez zait gustatzen.

Eta kasu egin zidaten, kuadrillaren artaldetasunean. Hasieran, dozenara ez zen iritsiko edandako zerbeza kopurua, baina ia-ia, hamar bat. Egun argiz da, musika reggaetonoak ordu txikiak direla iradoki nahi badu ere, iluntze sargori horietako batean, eta hain daude eder nire kuadrillako neska-neska guztiak, gizon joan-etorri etengabea gaudela, jatorrak edo babosoak, zakarrak edo leunak, zaharrak edo gazteak, krestadunak edo futbolista orrazkera degradatu hori dutenak.

Marrazoak dirudite odolusten ari den arrainaren bueltan, fokuetako argi berde-gorri-hori fosforito hauen artean.

Musika, ozenegi; dantza, pegatuegi; ni, lekuz kanporegi. Gizon heterosexualek ez dakite nola tratatu behar gaituzten gu, lesbianok, eta hemen nago, baina ez-hemengo sentitzen naiz. Ez-gutziz-emakume, ez femeninoki atsegin, ez irri absurdo horien performatzaile, ez reggaeton dantzari ona. Gu, haien oniritziaren bila bizi ez garen horiek, lesbianok, munduaren zentroa den haien begiradari izkin egiten diogunok; ez dugu interesik haiekiko, are, nazka eta gorrotoaren arteko zerbait pizten diegu: anaidian onartzeko bezain haien antzeko izan ez, eta follagarriak izatera iristen ez garenok. Begietara begiratzen nautenean dakit. Ez dakite zer egin gurekin, gurekiko. Bozgorailuek tinpanoak lehertzen dituztenean, musika ozenak dena absurdo bilakatzen duenean, jarioa falta duten hizketaldi aspergarri eta totelkatu horietan, ez dago kode komunik. Batek sua eskatu dit, beste inork eman ez diolako, “ez dut”, eta urrundu da.

Borobil berean ari gara dantzan, ni eta kanpo egotearen sentimendu hau.

Gizon heteroak, emakume heteroak, eta mundu normalaren koreografia. Eta ni, festa madarikatu hauetan, eta L. hemendik bueltaka, bere lagun guaiekin, sudadera beltzekin, aro erraldoi brillante horiekin, septumekin, tatuaje politekin. Hain sentitzen naiz inozoa; pringada bat naiz.

Bitartean hemen, generizatutako desirak, botere harremanak, eta larru arras moztutako tronista orrazkera horiek eta ile luze plantxatuak, klonikoki berdinak. Horregatik, “Bai, gintonic!; baldin badago, Bulldogekin”, garrasi egin dut tabernan, laugarren aldiz.

Duda dut mozkorregi ote nagoen. Bukle batean sartu naiz. “L. ikusten badut zer? Agurtuko nau? Nik bera bai, baina berak ni? Lehen paso egin du nitaz. Zergatik? Zergatik?”. Sorgin-gurpil bat da pentsamendua, eta eskapu egin nahiko banio ere, ezin dut. “Bai, beste gintonic bat! ba al dago Bulldog?”, ez dakit zein erritmotan nabilen.

Taberna hau oso ilun dago eta hemen balego ere, ez ninduke ikusiko, nik ez nuke ikusiko. “Bera rallatzen al da hainbeste? Honek mugitzen du? Berdin zaio? Zergatik ez nau agurtzen?”. Hamster bat naiz, nire garunaren perimetroan bueltaka.

“L. ikusten badut zer? Agurtuko nau? Nik bera bai, baina berak ni?”, uste dut eguna argitzekotan dela. Hamsterrak oka egin behar du.

Barrara joan naiz, baso bat ur behar dut. Destilatu pilaketa honek ez dit onik egiten, deshidratazio hautatutik, gogorregia zait gizartearen maketa hau, eta lodiegia, mingaina. Ahoskatzerakoan, duda egiten dut nola esaten ote diren gauzak. Blablablablabla mantsoa. Pausoa ere, traba zait. Blablablablabla. Auto-zango-traban nabil. Baso bat ur, ez dut ezer gehiago behar edo litro bat edo hamar edo dutxa bat eta eguna berriz has dadin.

Buelta eman dut, eta L. hemen dago. Hemen dago L., niregandik metro batera.

Begiratu diot, mozkor baten duintasunez, eta ezagutuko ez banindu bezala egin du. Besterik gabe. Ezezagun bat naiz berarentzat. Orduan jakin dut, ez nau agurtuko. Ez nau inoiz agurtuko. Hurrengo urteetan kateatuko zaidan pentsamenduaren hasiera da hau, “Zergatik ez nau agurtzen? Bera rallatzen al da hainbeste? Honek mugitzen du? Berdin zaio? Zergatik ez nau agurtzen?”. Bihotzekoak eman behar dio barne karraskariari, hiltzear dago hamsterra.

Izaretan oskoldu naizenean, halako hutsune existentzial zikliko horietako batean, munduko pertsona txarrena sentitu naiz, eta buruaren *off* botoia kokatzea ahaztu zitzaielakoan nago.

Ulu etorri da nirera, ileak zutituta, isatsa goratuta, ufaka, katuaren aldarte harro horretan, gehiegikeria sentsazio horri gailendu, eta nirera gerturatu dut. Eskua pasa diot bizkarrezur iletutik. “Katu batekin lo egiten duen lesbiana bat naiz”, pentsatu dut, lehenagoko patetismo maila nahikoa ez, eta, orain, hau.

Eta imajinatu dut L., bere lagunekin, dantzan oraindik, ez hain mozkor, gainera ligatzen, zorientasunaren summumean, dena ematen. Bera, tatxarik gabea, koherentea, hobe. Imajinatu dut ni ez naizen dena dela, nik ez dudana dena duela.

2024ko abuztuaren hondar egunak

“SUTE HANDI BAT piztu da Berriatuako etxebizitza batean”, irakurri dut egunkarian, kasualitatearen kasualitatez. L.-rekin oroitu naiz, aspaldiko partez, jada ez zen existitzen nire garuneko zokoetan, joan da nire azaletik, ia borratua nuen biografiatik, baina bere Herria da; bada denbora ez dugula inon topo egiten. Hala ere, harekin zerikusia duen zerbait azaltzerakoan, Herri hori, lagun bat,

borratu ez nuen bere emailen bat... zeinen gaizki, eta gero, bat-batean eta arin-arinean, erabateko ahanztura, zeinen ezaxolati; erlatiboa da mina.

“Sute handi bat piztu da Berriatuako etxebizitza batean”. Ez naiz bertan egon, “utzi genuenetik”. Total, berdin izango luke, topo egingo bagenu ere, ez ninduke agurtuko. Lepoa tenkatuko luke, burua goratu, bere lagunei irribarre bat luzatu, eta ikusi ez nauela antzeztuko luke, beste behin. Errazagoa litzateke dena formalismoz mantendutako elkarriketa antzu bat izateko gai bagina, errazagoa, niretzat, eta, aldi berean, zergatik obsesio hau? Arrazionalismorantz, dena kontrolpean izaterainokoa.

—Albaranak egin dituzu? Eta Mendexatik deitu dute, email bat bidali dutela, eta ez dutela erantzunik jaso —nagusia da, nagusiaren seme izandakoa, nire adineko desfasatu bat. Bulegoan nengoela ahaztua nuen ia. Alkandora bat jarrita, farlopa arrastoak ezabatu dituela uste du, egote tentsionatu hori du, beti alertan dagoenak nola, alterazio maila zehazgaitza. Askotan ez dut jakiten asteburutik horrela dagoen edo horrela den. Berak agintzen du, ordea.

—Bai, emailarena pasa zait, idatziko diet, barkatu, eta albaranak, oraintxe.

Toldoak, karpak, gortinak eta halakoak muntatzeko enpresa honetan nola bukatu ote nuen aztertzen hasiz gero, ez dakit oso ongi zer erantzun. Bada, artearen historia ikasi izanak agian ez zuelako zentzu handiegirik izan, bada, beste zerbait bilatzeko alferra naizelako, bada, enpresa etxetik gertu dagoelako eta 17:00etarako bukatzen dudalako. Ez dakit.

Lagun komunitate horizontal transfeminista antikapitalista eta okupa batean biziko zen norbait izan nintekeela amesten nuen, lehen. Gaztetan. Are gazteagotan. Baina, ez. “Eider naiz, 31 urte baino ez ditut, eta toldoak saltzen ditut”, aurkezpenak nire hanka sartze guztiak ekartzen dizkit errenkadan.

Mendiak ikusten ditut beirate erraldoitik, pinudi luzeak, baserri sakabanaturen bat, portxean toldoa jarri nahiko duen duplexen bat.

Batzuetan, argi ikusten dut: pinu bat naiz. Oximorona dirudien zuhaitz ahula. Barrutik gaitzak jana, kanpotik sendo. Barrutik gaitzak jana. Bazter guztietakoa, eta hala ere, beldur naiz, ni ere ez ote nauen moztuko bizimodu honek, ez ote nauen haize ufada batek, kolpetik, lurrera botako edo erantzun beharreko hurrengo telefono dei txatxuak, toldoetako lanak edo entsalada-lentejak-pasta-petxugak asteroko menuak. Sorgor dago haizea egiten ditudan zaratekiko. Eta

onddo karraskari bat senti nezake ezpalaren bihotzean, errutina hau; ni irenstear, ni noiz eroriko zain. Neroni naiz gaitz eta esentzia, pinu eta onddo, barrunbe eta sendotasun. Neure burua jaten ari naiz. Baina sarrera ontziak *klik* soinua egin du, eta mezu bat duela dio ordenagailuaren pantailak; eta lanera, berriz.

Saturrararen nengoke oraintxe, hemen baino, gatz eta hezetasun lurrin hori airean, igerian. Baina, hemen nago, aire girotua jartzeko xuhurregia den nagusiarekin. 30 gradu ari ditu. Telefonoak jo, eta entzuten dut: “Portxearen atzeko aldearen ezkerrean, piszinaren ondoan, itzalak jotzen duen gunean, hor, justu hesia bukatu eta ezker, iluntzean hotz gehiegi egiten duen lekuan, hor, badakizu, non? Bada hor, toldo bat jarri genuen eta ez dakit neurri egokia den, zeren eta gehien-gehiena estaltzen du, baina ez den-dena eta orduan, zirrikitu bat gelditzen da, argi printzen zirrikitu bat, eta leihotik ikusten dudan aldiro, pentsatzen dut ‘deituko ditut enpresakoak, konpon dezaten’, eta, horixe”.

Batez beste, 5 minutu irauten dute deiek, nik bi esaldi jarraian esaterako. “Ados, konponduko dugu, eskerrik asko deitzeagatik, ondo izan!”. Buruko mina dut, hain jatorra naizela antzetzear, baina hauxe da soldatapeko lana: irribarre egin ordu gehiegiz, etxera ospinduta heltzeko.

Ordenagailuaren pantailan nire burua islatua ikusteak neurekiko errukia sortu dit, eta astebururako egun bakarra falta dela oroitu dut. Irla bat, monotonian. Zoriontsu izateko eguna.

Pitillo bat erretzera jaitsi naiz enpresa atarira, hortz horituek lasaitasun mental pixka bat eman diezadaketelakoan. *Signala* zabaldu dut sakelakoan, eta “Egun on, guapa, gero Saturraranera?”, idatzi diot azken hiru hilabeteko fitxajeari, eta gero, emotikono hori, irri txikia eta masail gorriak dituen eta, ondoan, bestea, eguzkitako betaurrekoak daramatzana; “Bai, noski, potxola” erantzuna, jaso, eta aldartea aldatu zait, eguzkia atera berri dela dirudi, enpresagunearen beltz ajatuaren kontrakarrean. Oraintxe, segundotxo honetan, guztiz zoriontsua naiz.

Eraikin guztiak berdinak dira poligono honetan: grisak edo adreilatuak, pintatu gabeak, teilatu gorridunak, are herdoilak eragindako teilatu belzdunak, enpresen izenak biltzen dituzten kartel antzekoekin eta interes maila eskas berberarekin: *Segurola tailerrak; Martinez & Cia. Bizikletak*; eliza ebanjeliko xeblebre bat hor nonbait; eta gurea: goian, bulegoak, behean, tailerra. *Azurmendi Toldoak*.

—Ei, egun on, aspaldiko! —esan dit.

Nik ez dut gerturatzen ikusi, inoiz ez da inor ibiltzen poligono hauetan, betiko langileoz gain.

Beñat da, kamiseta zuriz dago jantzita, galtza beltzez, baporagailua du ahoan, ia ez dut ezagutu.

Bada denbora ikusten ez nuela. Modernoegia da, eta, proletario-guneko estetika dekadenterako, flow gehiegi duela pentsatu dut.

—Egun on, zeinen arraroa zu hemen —esan diot, ez baitakit zer esan. Parrandan edo, bestela, ikusi dudan gutxitan, nirekin hitz egitea saihesten du.

—Pankartetarako rolloa erostera etorri naiz.

—A bai, klaro —isiltasuna, bion artean; kalada bat eman diot zigarroari, zerbait egitearren.

—Gauza bat, E. ... Aspaldi ez zaitut ikusi... eta ez dakit ba ote dakizun... Beno... Badakizu L. hil zela, ezta...? laz.

“Zer?”. “Zer” sakon bat, buru barruan. Ez nekien, ez. Ez nekien. Zerbait esan behar dut, altuan, ez buru barruan. Ez nekien. Urtebete pasa da, eta ez nekien. Nola ez naiz enteratu?

—Ez, ez nekien, ez.

—Bere buruaz beste egin zuen. Ikusi zaitut... eta okurritu zait agian ez zenekiela, eta, beno... jakin dezazun. Horixe.

—Bale, mila esker —segundoak, mantso; airea, pisutsu; paisaia, lausotzen.

—Zu? Dena ondo?

—Bai, bai, hortxe —eta zirkunstantzia aurpegi horietako bat.

—Animo.

—Bai, berdin. Aio, zaindu, e!

—Bai, bai, berdin... aio! —hildako konpartitu bat duten ezezagunen artean sortzen den atmosfera hori, inguruan.

Eskailerak igo ditut. Inork ez dit esan. Nola ez naiz enteratu? Nork esan ziezadakeen? Ez dugu lagun komunik, eta aspaldi ez genuen kontakturik eta... Baina erdi-gertu edo bizi gara; ez naiz enteratu. Eskailerak kamera geldoan igo ditut, bulegoraino, bakarra igotzeak birikak itotzeraino uzokurtuko balizkit lege. Hamalau eskailera. Lehengo toki bera da: lehengo mahaia, ordenagailua eta zereal barratxo bukatu gabea, beste unibertso bat dirudi, ordea. Inoiz baino ez-lekuagoa da hau.

L. hil da. Inoiz ez nau agurtuko. Ez dut erantzunik jasoko. L. hil da, joder. Intziriak itotzen ahalegindu naiz, baina malko arraka ari naiz. Ez nau inork ikusten. Neronek neure burua malkotan itoko dut. L. hil da. Ezin dut sinetsi. Zergatik? Joder.

Mendiak ikusten ditut beirate erraldoitik, pinudi luzeak, baserri sakabanaturen bat, portxean toldoa jarri nahiko duen duplexen bat.

Pinu bat nola erortzen den ikusi dut, ia zurtoinetatik, metroen altueratik, lur marroi hezearen kontra, geldoa iruditu zaidan amiltzean.

Pinu bat nola erortzen den ikusi dut, laneko leihotik, gaitzak jana.